

SENAR-EMAZTEAK-I

Anton Erkorekak Bermeon bildutako ipuin zaharra

Taberna batean, gizon artean, gizon bati esaten diote emaztea jo behar duela. Eta besteak galdetu:

- Zertarako?
- Emaztea jotzen ez baduzu ez zara gizona -erantzun besteek.

Badoa gizona bere etxera eta emazteari esaten dio:

- Emaztea, jo egin behar zaitut.

Emazteak erantzun:

- Zergatik jo behar nauzu, ez badut ezer ere egin?
- Jo egin behar zaitut, zeren eta, jotzen ez bazaitut, esan didate ez naizela gizona.

Ordutik egunero jotzen zuen emaztea.

Egun baten tabernara joan eta besteek esaten diote:

- Zer, orain jotzen duzu emaztea?
- Bai, orain jotzen dut –erantzun honek.
- Ba, orain bazara gizona.

Anton Erkoreka

Etnografía de Bermeo, 3

Leyendas, cuentos y supersticiones

Doniene Bilduma

Bilbao, 2000